

# Literatura

## Euskal mitologiaren kondaira eta marrazki bilduma osatua

Aritza Bergarak duela bi urte argitaratu zuen euskal mitologiaren inguruko liburua gaztelaniaz kaleratu berri du, «Mitología del Pueblo

Vasco - Tras las huellas de los gentiles» izenburuarekin. Hainbat idazlek idatzitako ipuinak bildu eta osatu ditu, irudiekin lagunduz.

Nagore BELASTEGI | DONOSTIA

Aritza Bergara idazlearen «Euskal Herriko Mitologia - Jentilen aztarnaren atzetik» liburua gaztelaniazko bertsiara argitaratu berri dute. Orritz eta Adarmendi kultur elkarteek esker editatutako liburua euskal mitologia ezagutzera emateko intentzioarekin dago sortua. Idazleak berak azaldutakoaren arabera, jatorrizko lana 2010ean argitaratu zuten euskaraz, DVD batekin batera. Hautu hori egin zuten euskal mitologiari buruzko informazio asko zegoelako, baina ez zegoelako ondo bilduta, eta ikusentzunezko formatuan ere ez zegoelako materialik. Oraingo honetan, «Mitología del Pueblo Vasco - Tras las huellas de los gentiles» liburua besterik ez da, baina oso bisuala.

Izan ere, Bergarak Daniel Castello ilustratzailearen laguntza izan du pertsonaia bakoitzaren irudikapena egitera. «Berak ez zekien ezer ere ez euskal mitologiari buruz, beraz, nik idatzitakoaren arabera sortu zituen irudiak, ima-



Aritza Bergara, pasa den Durangoko Azokan. ADARMENDI ELKARTEA

### GURE PERTSONAIK

**Aidekorekin hasita eta Zezengorriekin amaituta, pertsonaia bakoitzak, alfabetikoki antolatuta, deskribapena, istorioa, ilustrazioa eta egungo garaiekin lotzen duen testu laburra darama, lau orrialdetan banatuta.**

jinatzen zituen bezala», azaldu zuen idazleak.

Ilustratzaileari esan zioten bakarria izan zen irudiak bizirik dauden itxura izan behar zutela; errealak izatea, alegia. Izan ere, pertsonaia bakoitzari eskainitako lau ataletako bat hori da: egun ere bizirik daudela adierazten duen testu labur bat.

«Duela hamar urte mitologiari buruzko istorio bat idatzi nuen, non pertsonaia desberdinak nahasten zihozten. Liburu honetan pertsonaia bakoitzak bere istorio propioa dauka. Esan daiteke aurreko lanaren jarraipen bat dela», kontatu zuen.

Horiek guztiak idazteko euskal idazle klasikoekin kontaktatzeko izan zituen oinarri, hala nola Barandiaran, Azkue, Sartrategi edo Baroja. «Kontaktatzun batzuk oso laburrak ziren, bi edo hiru lerrokoak besterik ez, eta nik egin dudana da horien sustraiak mantenduz modu erakargarriagoan idatzi», adierazi zuen.

Erakargarriagoa, jo puntua batez ere gazteengan jarrita, «beraiek irakurtzen badituzte bizirik mantenduko direlako kondairak». Aritza Bergararen esanetan, gazteek gero eta gutxiago irakurtzen dutela diogu, baina agian errua sortzaileena da, beraiatzat aproposak diren liburuak egiten ez dituztelako. Erakargarriagoa omen zaie telebista edo ordenagailua, eta horregatik landu dute formatu bisuala lan honetan. Hala ere, nahiz eta hezkuntza arloan erabiltzeko idatzi zuen -eskoletan edo euskaltegietan- mitologia maitatzen duen edonorentzat interesgarria da aurrean dugun liburua.

## HAUR ETA GAZTE LITERATURA

### Erraietatik

#### ANUBIS 3.0 ARIMAREN PISATZEA


Dani Fano.

Ikastolen Elkartea, 2002.

Asun AGIRIANO

Orain dela bizpahiru urte, «Xabiroi» aldizkarian atalka argitaratutako istorioa bildu, eta aurten album formatuan kaleratu da «Anubis 3.0» komikia. Ez da erraza izaten pauso hori ematea; izan ere, komiki bat egiteko proiektua ez da di-da batean gauzatzeko, sortze prozesutik argitaratzeraino urteak igaro daitezke. Ilusioa eta kemena gutxienez ez zaie falta Euskal Herrian komikiaren munduan murgilduta dabilzanei...

«Anubis 3.0»-k gizakiaren alde ikusezina azaleratzen du, gaurko egunetara ondo baino hobeto egokitzen den istorioa hartzen



du ardatz. Gadu zientzialariak arima pisatzeko tresna asmatu zuen, eta negozio bihurtu, aberatsen eskura jarriz. Horrekin, bere ezagutza eta teknika diruaren truke saldu zituen. Urte batzuk geroago, bakartua eta ozpindua bizi da urrutiko asteroide batean, eta Ammit etxeko robot zintzoaren galderak erantzunez, aitortu gabe zituen gezurrak eta erruak kontatzeari ekingo dio. Indar handiko hasiera du komikiak: «Ez dut jendea maite, ergel sorta amaigabea», dio Gadu ikerlariak.

Funtsezko bost pertsonaia daude: publizista gezurtia, banku-langilea, esatari politiko ustela, kirol-mediku gezurtia eta giza baliabideen zuzendaria. Guztiak hipokrisian goxo bizi eta kontzientzia diruaren zerbizura jarri duten pertsonaia dira. Munduaren egoera ikusita, Fanok kapitalismo basatiko protagonista batzuk aukeratu, eta denak larrutzen ditu. Komikia gizartearen kritika zorrotza da, eta, 2035. urtean bizi diren pertsonak izan arren, irakurleari zerbait gai oso ezagun egingo zaizkio: bankuak eta etxe kaleratzeak, kontsumitzaileak engainatze aldera talentua saldu duen marrazkilaria (egileak ironiaz dio: «...talentua

alferrik galdu ez zedin, loretxoak margotzen, edo komikiak egiten»), debekatutako substantziak kirolari ezagunei ematen dizkien kirol-medikua, eta abar, eta abar. Errebeldiaz eta mendekuz elikatzen da Dani Fano marrazkilaria esku trebea, eta emaitza istorio ausarta eta indartsua da. Mezu argia eta hausnartzeko parada ematen digun komikia da. Irakurlea harrapatzen badi ere, patxadaz irakurtzekoa, soseguz ikusi eta gozatzekoa.

Binetak maisutasunez marraztuta daude, marra garbia eta kolore planoak erabiltzen dira. Gidoia ondo garatua dago. Liburuaren azalerako aukeratutako irudia bera ere ikusgarria da. Aipatzekoa, halaber, komiki honen proiektuak bizpahiru urte luze iraun duen denboran, Fanok Asisko Urmenetaren laguntza izan duela; zentzu honetan, elkarlan horrek non izan duen eragina ikusteko, ariketa interesgarria da, adibidez, Asisko Urmenetaren binetaren marrazkia non dagoen aurkitzea.

Urte sasoi honetan, Gabonetan murgildurik, kotoi eta azukre giro bigun samarretan sarturik, ongi etorria izan dadila «Anubis 3.0» komikiaren kontzientzia astindua!